

# Aretxagazeta

**ETA GAINERA...**

## Ze barri?

GAIA

**Takolo, Pirritx eta  
Porrotxen estreinaldia /8**

GIZARTE

**Odola emateko kanpaina  
datorren astean /9**

LEINTZ GATZAGA

**Jakion, haziz doan  
enpresa /10**



**Aisialdirako  
hamar txabola  
Urkuluko bidegorri bazterrean**

**ELKARRIZKETA: ANGELES DOMINGUEZ, ODOL EMAILEA/5 • HERRITARRAK: JOSE VALLE/7**

**GUARDIAKOFARMAZIA**

**ZAPATUA, 30**  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. . . . . 943 79 21 99  
**DOMEKA, 1**  
FRAILE, J. Herriko plaza, 10. . . . . 943 79 85 83

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

<b>OROKORRAK</b>	
Almen . . . . .	943 71 49 07
ARETXAGAZETA . . . . .	943 79 86 21
Faxa . . . . .	943 77 18 54
Basotxo . . . . .	943 77 09 81
Euskaltegia . . . . .	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea . . . . .	943 71 18 62
Hezibide elkarte . . . . .	934 79 31 32
Industrialdea . . . . .	943 79 62 80
Institutua . . . . .	943 79 79 00
Kirol etxea . . . . .	943 71 26 28
Kultura etxea . . . . .	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola . . . . .	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI . . . . .	943 79 57 40
Liburutegia . . . . .	943 71 18 62
Loramendi EE . . . . .	943 77 09 70
Ludoteka . . . . .	943 79 05 81
Mankomunitatea . . . . .	943 79 30 90
Murruxiko ME . . . . .	943 79 93 74
Musika Eskola . . . . .	943 79 36 50
Osasun etxea . . . . .	943 71 19 59
Otalora . . . . .	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) . . . . .	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola . . . . .	943 77 03 77
Postetxea . . . . .	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea . . . . .	943 79 17 00
Saretxo . . . . .	943 71 26 56
Taxi geltokia . . . . .	943 79 22 33
Udal Bulegoak . . . . .	943 71 18 62
Udaltzaingoa . . . . .	943 71 18 63
Urats Gain . . . . .	943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**  
Arrasate . . . . . 943 79 14 39

**LARRIALDIK**  
SOS Deiak . . . . . 112  
Eskualde Ospitalea . . . . . 943 03 53 00  
Ertzaintza . . . . . 943 79 71 99  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
Larrialdiak . . . . . 943 46 11 11  
Suhiltzaileak (Oñati) . . . . . 943 78 28 00

**MEZAK**

**ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA**  
Domeketan: 11:00/12:00  
Zapatuetan: 19:30  
Lanegunetan: 19:00

**SANTA RITA**  
Domeketan: 09:00/10:00  
Lanegunetan: 08:00

**BASERRI AUZOETAN:**

**LARRINON**  
Domeketan: 11:30

**MENDIOLA**  
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

**GALARTZA**  
Domeketan: 12:30

**OHARRAK**

**1976KOEN KINTO-BAZKARIA**  
Bihar, zapatua, 1976. urtean jaiotako kintoek kinto-bazkaria egingo dute, Bermeon.

**1974KOEN IRTEERA**  
Bihar, zapatua, 1974. urtean jaiotako kintoek irteera egingo dute, Zarautzera eta Getariara.

**AESLEME-KOEN BERBALDIA KURTZEARRI ESKOLAN**  
Astelenean, abenduaren 2an, AESLEMEkoek (Muineko Gaitzen Elkarte) berbaldia egingo dute, Kurtzebarri Eskolan, 12:00etan. Gaia: nerabezaren eta gazteen istripuen prebentzioa.

**SORTU BERRI DEN TALDE BATEK PRENTSAURREKOA EMANGO DU**  
Aretxabaletako talde berri batek taldearen sorreraren gaineko prentsaurrekoa emango du. Prentsa agerraldia martitzenean egingo dute, abenduaren 2an, udaletxeko ganbaran, 20:00etan.

**UDAZKENEKO JAIALDIA KURTZEARRI ESKOLAN**  
Kurtzebarri Eskolako ikasleek, irakasleek eta gurasek Udazkeneko Jaialdia egingo dute, abenduaren 5ean, Iturigorri pilotalekuan. Jaialdia 18:00etatik 20:00etara egingo dute.

**LORAMENDIRENAGENDA**

**TALOAK EGITEN IBILI ZIRENEN AFARIA**  
Gaur, egubakoitza, San Migel jaietan Loramendi Euskara Elkarteko txosnan taloak egiten ibili ziren guztiak afaria egingo dute, Apotzagan.

**SEASKAKO EGUTEGIAK SALGAI**  
2003. urteko Seaskako egutegiak salgai daude, Loramendi Elkarteko egoitzan. Pasa zaitez handik, 16:00etatik aurrera.

**ORAINDELA 5 URTEARETXABALETAN**

**Bizikletak batu zituzten Mozambikera bidaltzeko**


1997. urteko azaroaren amaieran, 60 bizikleta baino gehiago batu zituzten, Mozambikera bidaltzeko. Ekimen hura Jorge Bengoak gidatutako talde bate-na izan zen. Herriko plazara denetarik bizikletak eraman zituzten: txikiak, handiak, motozikletak, umetxoendakoak...




**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Basatzia"*

Lokatzadia. Baita elur zapaldua eta urtsua.  
— *Mekauben, emen jak basatzia, oiñetako guztiak kakaztuko jittuau.*  
— *Azkenengo edurtian egundoko basatzia ein zan Bergako kaletan.*



**ZORIONAGURRAK**



ESKORIATZA  
**Ander Beitialarriñoitia**  
24an, 3 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA  
**Conchi Gallego**  
21ean. Zorionak eta muxu handi bat, senarraren eta semearen partetik.



ARETXABALETAKO  
**Sandra Labrador**  
2an, 11 urte. Zorionak eta muxu bat, aitaren eta amaren partetik.



ARETXABALETAKO  
**Ander L. de Armentia**  
3an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko- en partetik.



ESKORIATZA  
**Susana Gómez**  
1ean, 21 urte. Zorionak eta muxu bat, koadrilako guztien partetik.



ARETXABALETAKO  
**Elene Berezibar**  
2an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko- en partetik.



ARETXABALETAKO  
**Xabier Armentia**  
29an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko- en partetik.



ARETXABALETAKO  
**Xabier Zubillaga**  
29an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko- en partetik.



ARETXABALETAKO  
**Mikel Umerez**  
1ean, 8 urte. Zorionak eta muxu bat, Aitorren, Xabie- rren eta Iñakiren partetik.



ESKORIATZA  
**Maider Azkargorta**  
25ean, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko- guztien partetik.

**LIBURUTEGIKOTXOKOA**

**Liburuen zerrenda**

- NOBELAK**
- 'Los hijos de Ogaiz' / Toti Martínez de Lezea
  - 'América: la aventura de cuatro mujeres en el nuevo mundo' / Angeles de Irisarri
  - 'Yo, otro: crónica del cambio' / Imre Kertész
  - 'Kaddish por el hijo no nacido' / Imre Kertész
  - 'Los caminos perdidos de África' / Javier Reverte
  - 'Memorias del fuego III. el siglo del viento' / Eduardo Galeano
  - 'Buick 8: un coche perverso' / Stephen King
  - 'El huerto de mi amada' / Alfredo Bryce Echenique
  - 'Regreso a Brekheart Hill' / Thomas H. Cook
  - 'Vivir para contarla' / Gabriel García Márquez
  - 'Cuarentonas' / Waris Dirie, Jeanne D'Haem
  - 'Amanecer en el desierto' / Inger Frismansson
  - 'El último trayecto de Horacio Dos' / Eduardo Mendoza

JOSEBA LÓPEZ DE ARMENTIA


FOTO  
**UrKiola**  
ARGAZKIDENDA

Likidazio osoa negozioa ixtera goazelako

**Dena %50ean**

Herriko plaza 5, ARETXABALETAKO. TEL. 943 79 39 20.

## ATREBENTZIAEZPADA/ Igez, sasoi honetarako, edurre egin euen. Aurten, kalefakziñorik ixotu dozu?




**AGUSTIN FERNÁNDEZ**  
langillie



**PURI BLÁZQUEZ**  
langillie




**CONCHI CARRASCO**  
langillie



**EMILIANO ALTUBE**  
jubilaue



**JUANITA UGARTEBURU**  
jubilaue



**FERNANDO UNANUE**  
langillie

Ez. Etxien ez dauket kalefakziñorik, ezta biherrik be. Hiru etxe artien dago neurie, eta hareik emundako berotasunaz nahikue izeten dot. Aurten, ondion ez dau hotzik egin.

Bai. Neure etxie oso hotz da, eta abuztuen be kalefakziñue ixotu neuen. Oin, udazkenien, arratsaldietan ixoketan dot. Dana dala, ezin kejavu, oin arte, behintzet, giro ona egin dau-eta.

Bai, baiñe denbora laburrien eukitten dogu ixotute, bi edo hiru orduen bakarrrik. Oin dala hamabost egun jarri neuen lehenengo aldiz. Uda txarra eta udazken ona egin dusku.

Bai, oingo astien ixotu dogu lehenengo aldiz kalefakziñue. Pare bat orduen bakarrrik eukitten dogu ixotute. Udazken ona egin dusku, baiñe oin, iguel, negu gogorra eukiko dogu.

Bai. Egunez ixte ez dogu ixoketan, baiñe gabetan bai. Ointxe hasi die egunak hotziketan, baiñe oin arte ez dau edurrik egin, ezta izozterik be. Negue, barrez, txarra datorrela esan daue.

Bai. Ume txikiñe daukogu etxien, eta harengaittik ixotu dogu kalefakziñue. Domu Santu Egunien ixotu geuen lehenengo aldiz. Atsaldietan eukitten dogu ixotute, hiru bat orduen.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXALOAK ONDO EGINDAKO KONPONKETA** Behin txistuak bota nizekion errepide zatiak oraingoan txaloak merezi ditu. Goiko argazkian azaltzen den bide zatian sekulako zuloa zegoen orain arte. Joan den astean, berriz, konpondu eta txukun-txukun utzi zuten. Gaizki dagoena kritikatzeta eta ondo egindakoa txalotzeta da tarte honetako eginbeharra; hortaz, horra hor, oraingoan, nire txaloak. /A.L.

### ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

#### Aisialdirako txabolak

Debagoieneko Industrialdeak aisialdirako hamar txabola egin ditu Urkulurako bidegorrian.

ELKARRIZKETA /05

#### Angeles Domínguez

Angeles Domínguez 57 urteko odol emaila aretxabalek bere esperientzia kontatuko digu.

KIROLA /06

#### Mendi Asteari gainbegiratu

Murruki Mendizale Elkarteak joan den domekan, hilaren 24an, amaitu zuen 2002 Mendi Astea.

### ASTEKODATUA

# 16.760

#### EURO KOBRATZEN DITUZTE, BATEZ BESTE, URTEAN

Gipuzkoan herriz herriko azterketa egin ostean, Aretxabaletarrek, batez beste, urtean 16.760 euro kobratzen dituztela jakinarazi dute. Gipuzkoan sailkapen horretako bosgarrena da.

### BESTEKEESANA

**“** Neguko eskaintzan egokitzapen bat egiten dugu. Adibidez, Bergarako Turismo Bulegoa zubietan

bakarrrik irekitzen dute, baina hala ere, eskualdean badugu bestelako eskaintza. Oñatin hor daukagu Arantzazuko Santutegiko erakusketak. Berez, urriaren 12an itxi egin zuten, baina oraindik jai egun eta asteburuetan zabaldu egiten dute. Gero, Oñatin adibidez, unibertsitatean bisita gidatuak egiten ditugu. Arrasaten erakusketak industrialak zabalik jarraitzen du. Eta azkenik, Leintz Gatzagako museoa eta Eskoriatzako museoa beti daude zabalik. Noski, jaitsiera bat egon dela, baina, hala ere, baditugu oraindik erakusteko gauza batzuk. Oraingo bisitariak hemen ingurukoak izaten dira.

**ANA HERIZ**  
Arrasate Irtatia/02-11-26

### HERRITARRENBERBAK/ Xabier Sarasua



*Testamentue eta euskalduntasune*

**K**ofradiako listetan agerketan ei naz. Eta ni oindio testamentue idatzi barik.

Baiña zer banatuko neuke betiko fan bihera tokau ezker, zorrak besterik ez daukot eta? Bihotz barruko bakie, maitasune, poztasune, fedie... Baiña horreik be norberak euki biher, inori emuteko. Neure semiei itxi gure neuskien ondareik edarrenetakue zera da, euskalduntasune.

Alde batetik, geure zaharrek emun doskuen ondare da; euskeriengandik hasitte. Geure artien konpondutako eta geure arazuei aurre egitteko emun doskuen erremintie da euskerie. Eurek bizimodue ulertuteko eta aurrera egitteko eukien moduen espillue da. Baiña gaiñera, geure biherretara egokittuten dana. Geuk bera aberastuten douen heiñien aberastuten gaittu berak be geu.

Kantuen eta dantzaren egittie be bada euskalduntasune. Mendixaz loturie eukittie be

bai, lurrai eta itsasuai etekiña errespetuz etaratie, lanerako sasoe eta jokurako gogue... eta beste gauza mordue. Horixe da euskalduntasune, geure aurrekuek pillatutako entendiendue jasoteko ebalie euen urrezko kriseillue.

Esandakuez gainera,

emaztien eta neure arteko zubixe be bada euskalduntasune. Arabako eta Gipuzkoako kontuen zubi, hiriko eta herriko izeteko moduena, jatorri espainiarren eta kultura euskaldunen artekue. Izen be, kontu bixok bat itten

**“Horixe da euskalduntasune, geure aurrekuek pillatutako entendiendue jasoteko ebalie euen urrezko kriseillue”**

dau benetako “elebidun” eta “kulturbidun” bi batzen dielako eta euskeraz eta euskaldun letxe bizitzie erabagitzen dauelako.

Bukaketako, neure semien dako bixerko posturie be bada euskalduntasune. Nor izeteko apustue: zaharren ondare eta emundako erremintta danak (euskerie be bai) hartu, eurenak egin eta, hortik aurrera, izen, egin eta bizi; eta bestiei bizitzen lagundu.

# Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
4.100 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzua

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

## Franco bizirik?

Aurreko batean Frankoren argazkiak ikusi nituen kalean. Franko bizirik dagoela zioten. 75ean hil ez zen ba? Berpiztu egin ete da? Ai, ama! Belar txarra ez ei da sekula hiltzen, eta agian hau ere erdi bizirik egongo da. Ez, ez da horrela, lasai egon zaitzte, mezu eta argazki horrek beste esanahi bat du, eta datorren asteko alean jakingo duzue zer esan gura duen.

Bestelako berriak ere badituzte gaur zuei kontatzeko. Badakizue Larrinoko bidea konpondu dutela azkenean? Bai, eta oso polito gelditu da, gainera. Aurrekoan oinez pasatu nintzen bertatik, eta hurrengoan bizikletan pasatzeko asmoa daukat. Aber bidegorria laster bukatzen duten. Buelta polita egin daiteke, bidegorritik Urkulura igo, honi buelta eman, eta hortik gero Larrinora. Gainera, ez du ematen oso gogorra izango denik, neronek ondo egiteko modukoa da.

Larrinokoa konpondu dute, eta orain Arientzakoa falta da. Aber hau ere konpontzen duten, eta lehenengoa bezain txukun uzten duten.

Eta besterik ez dut zuei kontatzeko. Dena dela, abenduak emango ditu berri gehiago, horien berri datorren astean kontatuko dizuet. Bitartean ondo hasi urteko azken hilabetea.

**TXABOLAK/** Bainuetxeko Industrialdea SAK egin eta kudeatu ditu txabola guztiak

## Aisialdirako txabolak egin dituzte Urkulurako bidegorri bazterrean


AMAGOIA LASAGABASTER

Garai baten, herritarrek txabolak eta baratzeak zituzten Bainuetxean. Baina leku hartan industrialdea egin zutenean, denak bota zituzten. Hala ere, txabola haien jabeak ez dira esku hutsik gelditu: Urkulurako bidegorrian txabola berriak egin dizkiete.

Debagoiena Industrialdea SAKo arduradunek beti izan dituzte kontuan garai baten Bainuetxean zeuden txaboletako jabeak. Horregatik, inguru hartan industrialdea egin behar zutela jakinarazi zieten, akordioa egin zuten: Bainuetxean txabolak zituzten jabeek beste txabola bat eraikiko zutelara adostu zuten. Hala, industrialdeko eraikinak bukatu zituztenean, txabolak eraikitzen hasi ziren Bainuetxeko goiko aldean, bidegorri berriaren bazterrean, hain justu ere.

### INGURUMENA ZAINTEKO AHALEGINAK

Ezer eraikitzen hasi aurretik, baina, Aretxabaletako Udalaren iritzia ere kontuan hartu zuten. Izan ere, Debagoieneko Industrialdeko arduradunek jakin bazekiten Udalak ez ziela utziko eraikitzen edozein txabola mota. Horregatik, Debagoieneko Industrialdekoek, txabolen jabeek eta Udalak erabaki zuten ingurumenari ahalik eta kalte txikien eragingo zioten eraikinak egitea.



AITOR URIZAR

Txabola bakoitzak itxutura eta baratze propioak izango ditu.

Dagoeneko ikusgai daude akordio horren emaitzak Urkulurako bidegorri berriaren bazterrean.

### AISIALDIRAKO TXABOLAK

Bainuetxeko Industrialdearen goiko aldean hamar txabola egin dituzte. Horietatik, bederatz


tamaina berekoak dira; bat, aldiz, handiagoa egin dute. Eta jabe guztiei jakinarazi diete txabola horiek aisialdirako bakarrik erabili ahal izango dituztela. Azken baten, gehienek baratzea jarri eta tresnak gordetzeko erabiliko dituzte txabola horiek.



## Elorregin hazitako txerri ederra hil zuten Larrino auzoko Kakotegi baserrian

San Martin Egunaz geroztik, lehenengo ilbehera garaia heldu da, eta, horrekin batera, inguruko baserrietan txerriak hiltzen hasi dira. Lehenetarikoak Larrinoko Kakotegi baserrikoak izan dira. Joan den astelehenean, hilak 25, 147 kilotik gora zituen txerria hil zuten han. Bost gizon elkartu ziren lan hori egiteko; lau, txerriari hanketatik eusteko eta bosgarrena, labana sartzeko. Bitartean, Kakotegiko sukaldetan zenbait emakume gertu zeuden txerriaren odola batu eta odolosteak egiteko.

Kakotegin urtero hiltzen dute txerria. Orain arte Arabatik ekarri izan dute animalia; aurretik, baina, Elorregiko Aierdi baserrian hazitako txerriaren txorizoak jango dituzte. /A.L.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

## Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



Miren &amp; Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda


Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)

Tel.: 943 77 13 57

ARETXABALETA



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

**ANGELES DOMÍNGUEZ/ODOL EMAILEA**

*“Beste batzuek nire odolaren beharra badute, zergatik ez diet, ba, emango?”*

AMAGOIA LASAGABASTER

Angeles Domínguezek 57 urte ditu, eta orain dela 13 urte hasi zen odola ematen. Arabako Odol Emaileen Elkartek Aretxabaletan odola eskatu duen bakoitzean, Angelesen A+ motako odolak ez du behin ere hutsik egin.

Noiz eta nolatan hasi zinen odola ematen?

Egia esan, ez dakit. Egun baten, horixe bururatu zitzaidan, eta odola eman nuen. Beste batzuek nire odolaren beharra badute, zergatik ez diet, ba, emango? Galdera hori egin nion neure buruari. Gainera, ordurako kojinata odol emailea zen, eta horrek ere animatu ninduen.

Gogoratzen duzun odola eman zenuen lehenengo aldia?

Ez. Ohiko egun bat besterik ez zen izan, ez nion berebiziko garrantzirik eman. Oker ez bango, orain dela 13 urte eman nuen lehenengo aldia odola. Ordutik hona, urtean bi aldiz joaten naiz osasun etxera odola ematera.

Gorputzean zer sentitzen da odola ematean?

Ezer ez. Ez naiz sekula beldur izan, lasai joaten naiz osasun etxera. 13 urtean ez dut zorabio txiki bat bera ere izan; odola norbera ohartu barik ateratzen dute. Osasun ona izatea beharrezkoa da, ezta?

Bai. Behin, gogoratzen dut anemia txiki bategatik odola eman barik etxera bidali nindutela erizainek.

Zuk inor konbentzitu duzu odola eman dezan?

Lagunen artean saiatzen naiz kanpaina egiten, baina batek ez dakit ze pilula hartzen duela, besteak gaixotasunen bat duela... Eta, azkenean, inork ez du odollik ematen. Etxean zorte handiago izan dut: semeari esan, eta berehala egin zen emaile.

Organo emaile ere bazara?

Ez, oraindik ez, baina gustatuko litzaidake. Nik beti esaten dut niri zerbait gertatuz gero libre direla aprobeztatu beharreko guztia hartzeko. Hurrengo baten, organo emaile izateko zer



*“13 urtean ez dut zorabio txiki bat bera ere izan; odola norbera ohartu gabe ateratzen dute”*

egin behar den galdetuko dut osasun etxean.

Emandako odola pagatu egin beharko litzateke?

Ez, ezta pentsatu ere. Odola eman egiten den gauza bat da, eta ezin daiteke erosi edo saldu. Nor bere borondatez eta konbentzimendu osoz egiten duen ekintza izan beharko litzateke.

Zergatik ez zinen lehenago hasi odola ematen?

Senarrak orain dela urte asko ematen zuen odola. Orduan ez zuten egiten gaurkoen moduko kanpainarik; emaileari, larrialdiaren bat gertatzen zenean etxe-

*“Hurrengo baten, organo emaile izateko zer egin behar den galdetuko dut osasun etxean”*

ra deitzen zioten. Gogoratzen dut nire gizonari erditze zail baten odol ugari galdu zuen emakume bati odola ematea tokatu zitzaioela. Gainera, poltsara beharrean, beso batetik bestera, zuzenean, egiten zen odol transfusioa. Gizonak esperientzia txarra bizi izan zuen, eta orduz gero ez du odollik eman. Eta, beharbada, nik ere beldur izan eta horregatik ez nuen garai hartan odollik eman. Gaur egun, berriz, esan bezala, lasai asko joaten naiz osasun etxera.

Zuk sekula behar izan duzu odol transfusiorik ?

Zorionez, oraindik ez.

**LABUR**

**Hiru gai onartu zituzten astelehenean, hilak 25, egin zuten ohiko osoko bilkuran**

Joan den astelehenean, hilak 25, egindako osoko bilkuran gai bi bakarrik zituzten onartzeko. Edozelan ere, azken unean beste gai bat ere azaldu zen, eta, azkenean, hiru gai onartu zituzten: lehenengoan, Aretxabaletako Institutu ondoan dagoen lursail bat Eusko Jaurlaritzari doan uzte onartu zuten; bigarrenean, Hiruaxpeko inguruan Udalak duen lursail baten kalifikazio juridikoa aldatzea adostu zuten zinegotziek. Aldaketa horrekin, Udalak Hiruaxpeko haizak eta inguruak babestu gura ditu; azkenik, Geriatria laguntzaile ikastaroak antolatzeko Udalaren eta Aretxabaletako Institutuaren arteko hitzarmena sinatzea onartu zuten.

**Udazkeneko Jaialdia egingo dute, abenduaren 5ean, eguenean, Kurtzebarri Eskolakoek**

Udazkenari agur esateko, jaialdia egingo dute, abenduaren 5ean, eguenean, Kurtzebarri Eskolako guraso, ikasle eta irakasleek. Helburua da euskararen normalizazio planari dagokion ekitaldi bat udazkeneko ohitura eta gastronomiarekin uztartzea. Horretarako, bi ataletan banatutako festa antolatu du Kurtzebarri Eskolako Jai batzordeak: batean, trikitilarien emanaldia, Irrintzi Léhiaketa eta bertsoa kantaldiak egingo dituzte; bestean, aldiz, gastronomia izango da nagusi, eta sagardoaren laguntzarekin batera, gaztaina erreak eta buzkantzak jango dituzte. Jaialdia Iturrigorri pilotalekuan egingo dute, 18:00etatik 20:00etara.

**TXUTXUMUTXUA**



**Franco bizi-bizirik dagoela iragarri dute**

Azaroaren 20an, hau da, Franko hil zeneko urteurren egunean, argazkian ikusten diren kartelak jarri zituzten Aretxabaletako kaleetan. Francoren argazkiarekin batera diktadorea oraindik bizirik dagoela iragartzen zuten aipatutako kartelak. Horrez gain, logotipo txiki bat bakarrik zuten. Inondik inora ez zen azaltzen sinadurarik ez eta kartelaren nondik norakoak azalduko zituen testurik ere. Herritarrak misterioa noiz argituko den zain daude.

**ARQUERO**  
**CONSTRULAN S.L.**

**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**

Tel.: 943 79 01 51  
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:  
**Lyonel Arquero**

Dekorazioa:  
**Soraya Arquero**

**IBARRA**  
estankoa

**PRENTSA ETA IKASMATERIALA**  
Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77  
ARETXABALETA

**ANDRA MARI**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala


Andra Mari Auzunea, 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

**BENGOA URDAITEGIA**

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 19 79

## FOTOKIROLA



## Murrukixok Toloñon esan zion agur aurtengo Mendi Asteari

Murrukixo Mendizale Elkarteak antolatutako 2002ko Mendi Astea joan den asteburuan, hilaren 23an eta 24an, egindako ekitaldiekin amaitu zuen. Aurtengo egitarauan diaporama emanaldiek izan dute berebiziko protagonismoa; horien artean, gainera, aretxabaletar bik, Iker Akizuk eta Eneka Guenetxeak, egindako diapositiba erakustaldiak izan dira arrakastatsuenak. Bietan ere aretoa jendez gainezka izan zen.

Bestalde, joan den asteburuko mendi bizikleta martxak eta Toloño mendirako irteerak ere aipamen berezia merezi dute. Mendiko bizikletan ibiltzeko, ohikoa denez, jende gutxi batu zen. Hala ere, zazpi lagunek hasi eta bukatu zuten Urrexolagairainoko ibilaldia. Toloñora joateko, berriz, 13 lagun elkartu ziren. Guardiatik irten, eta lasai-lasai igo ziren Toloñora. Gero, handik jaitsitakoan, Ribas de Tereso herrian (Errioxa) bazkaldu zuten. Antolatzaileen esanetan, giro bikaina bizi izan zuten mendizaleek.

ARGAZKIA: OIER ETXEBERRIA

## PILOTA TXAPELKETA

## Kirol etxeko Pilota Txapelketako finalerdietako partiduak, bihar, zapatua

Kirol etxean azken hilabeteotan jokatzeko ari diren Pilota Txapelketa amaitzeko dago. Joan den zapatuan, hilak 23, final-laurdenerako partiduak jokatu, eta honako bikoteak sailkatu ziren: Iñaki Korta eta Iraultza Iturbe; Asier Muxika eta Xabier Sarasua; Kepa Unanue eta Jose Maria Carrillo; eta Jabi Isturitz eta Iñigo Irasuegi. Sailkatutako bikote horiek, bihar, zapatua, finalerdietako partiduak jokatu dituzte: 10:30ean, Asier Muxika eta Xabier Sarasua zein baino zein gehiago arituko dira Jabi Isturitzen eta Iñigo Irasuegiren aurka; eta 11:30ean, Iñaki Kortak eta Iraultza Iturbek Kepa Unanueren eta Jose Maria Carrilloren aurka jokatu dute.

## XAKE

## Arlutz Xake Taldeak partidu guztiak irabazi zituen Euskal Ligako lehenengo jardunaldian

Arlutz Xake Taldeak ezin hobeto hasi du Euskal B Ligako Xake Txapelketa. Joan den zapatuan izan zuten lehenengo norgehiagoka, Aranbizkarrako xake jokalarien aurka, eta jokatuak lau partiduetatik, laurak irabazi zituzten: Aitor Alcaide, Esteban Romero eta Andoni Miguel inongo zailtasun barik gailendu ziren; Fran Migelek, berriz, lehia gogorragoa izan zuen aurkariarekin. Dena dela, lortutako emaitzekin sailkapeneko lehenengo postuan kokatu da Arlutz Xake Taldea. Bihar, zapatua, bigarren jardunaldia jokatu du Arlutzek, etxean. Aretxabaletarrek Bilboko Peña Rey Ardid taldeko xakelariek neurtuko dituzte indarrak.

## PARTIDUAK

## FUTBOLA

Tolosa- UDA

Preferentea.

Zapatuan. 15:30. Tolosa.

UDA- Bergara

Bigarren mailako erregionala.

Zapatuan. 15:30. Ibarra.

UDA/Almen- Santo Tomas

Gazteen Euskal Liga

Zapatuan. 17:30. Ibarra.

UDA/Alm.C- Eibar

Bigarren mailako gazteak.

Zapatuan. 11:30. Ibarra.

## EMAITZAK

## FUTBOLA

UDA 3 Ordizia 1

Preferentea.

Añorga 3 UDA 3

Gazteen Euskal Liga.

UDA (b) 4 Antzuola 1

Bigarren mailako erregionala.

Bergara 2 UDA (c) 2

Bigarren mailako gazteak.

UDA 1 Billabona 1

Lehenengo mailako kadeteak.

UDA 0 Bergara 1

Bigarren mailako kadeteak.

UDA 0 Arrasate 1  
Infantilak.

## PILOTA

\*Aretxabaletako pilotariak ez zuten partidurik jokatu aurreko asteburuan.

OSKAR  
GARAJEATel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
ARETXABALETA

Iber

★ Loteria ★  
✿ Paperdenda ✿  
✱ Liburuak ✱Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

IRIARTE

Umeen

denda

Helduen  
lentzeriaDurana, 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

Aretz

taberna

Markole, 5  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa  
orokorrakErrekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28

ARTANO akaitegia

Gosariak  
goizeko  
7:00etatik  
aurrera!

Herriko plaza 3. Tel.: 943 79 62 75 ARETXABALETA

Lie

LURRINDEGIA  
OPARI-DENDAMitarte, 18 • 943 79 38 59  
ARETXABALETA

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

MUNDUTARRAK ARETXABALETAN

JOSE VALLE

GALIZIA

**“Galizia biziki maite dut. Ahal dugun guztietan joaten gara; ama han daukat”**

AINZANE GARDOKI


Jose orain dela ia 38 urte, 14 urte zituela, etorri zen gure artera. Maleta hartu, eta lagunak eta familiarrekoak Galizian utzita, bakarrik etorri zen Aretxabaletara: “Hilabete lehenago lagun bat etorri zen, eta gutun bat idatzi zidan, hemen primeran bizi zela esanez. Eskola utzi nuen, eta berehala hemen nintzen. Lana aurkitzea nuen helburu. Iturben hasi nintzen lanean. 430 pezeta irabazten nituen astero, baina bizi nintzen etxeko nagusiari 400 pezeta ordaindu behar izaten nizekion. Larri, oso larri pasatu nituen lehenengo asteak. Gero, beste lantegi baten 100 pezeta gehiago kobratzen hasi nintzen, eta, apurka-apurka, nire egoera hobetzen hasi zen”, kontatu digu Josek. Etxekoek pentsatu zuten Euskal Herritik joan-etorritxo egin eta Galiziaraz itzuliko zela, baina ordutik hona, Aretxabaletan ezkondu, hiru seme-alaba izan eta hementxe egin du bere lekua: “Gali-

zia biziki maite dut. Ahal dudun guztietan joaten gara; ama han daukat oraindik, baita arreba bat ere. Lekuak, lagunak... Hori guztia ahazte-zina da. Aretxabaleta nire

*“14 urterekin eskola utzi nuen eta segituan etorri nintzen Aretxabaletara”*

lekua ere bada, baina baita Galizia ere. Ni hangoa naiz, eta hori ezin dut ahaztu”.

Prestige itsasontziak Galiziako kostaldean utzi duen hondamendiak min eman dio Joseri: “Ostiko ederra eman digute. Itsasoko gizonak diote ez dutela ondo jokatu agintariek. Gauzak gaizki egin direla Madrildik. Egunotan gertatutakoak gogotik ordaindu beharko ditugu oraindik”, dio, bihozminez, galiziar honek.



HURRETIK



Ana Granada

Anna's dendakue

Ana kokoteraiño euen fabrikako lanaz. Horregaittik, oin dala zazpi hillebete, lagun batekin erdi bana erropa dendie zabaldu euen. Ordutik hona, moda kontuek asko jarraitetan dittu.

Zergaittik zabaldu zeuen erropa dendie Aretxabaletan?

Beste erropa dendarik ixte ez daguelako eta bihera ikusten geuelako.

Elegante izeten ikesi egitten da ala elegante jaixoten da?

Elegante jaixoten da, duda barik.

Zu zeu zela janzen zara?

Batzuetan, oso-oso preparaute faten naz; eta beste batzuetan, justu kontrakue egitten dot: ixte preparau barik faten naz.

Erropa gustoko bat?

Fraka bakeruek.

Eta sekula jantziko ez zeuken erropie? Trasporentziak.

Emakume elegante bat?

Paloma Lago.

Guztiz trakets bat?

Agatha Ruiz de la Prada.

Aretxabaletarrak zela janzen die?

Ondo.

Mutillak ala neskak, zeintzuk janzen die hobeto?

Neskak.

Kanpoko itxuriari ez dutzegu larreiko inportantzia emuten?

Bai, batzuetako obsesiño haundixe bihurtu da.

Pelikula bat?

Caballo negro.

Olentzerori ze eskatuko dutzezu?

Osasune.

Ondo portau zara?

Ez.

Gabonetako loterixarik erosi dozu?

Bai, baiñe ez dot askorik jokaketan.

Odol emailie zara?

Ez.

AMAGOIA LASAGABASTER

NIREBIDAIAHURA/ Irma Arabaolaza

Australia / 2002an, azaroan

Thailandiatik zuzenean Australiara joatekoak ziren Irma eta haren laguna, baina, kontinente hartara joan aurretik, Asiako Kanbodia bisitatu gura izan zuten. Siam Reap herrian astebete pasatu zuten: “Bidaia gogorra egin genuen, Bangkoketik mugara lau ordu egin genituen autobusez, eta gero, beste bederatzita ordu behar izan genituen, kamioi txiki baten, beste 16 lagunekin batera, Siam Reaperaino heltzeko. Abentura hutsa izan zen bidaia”, kontatu digu Irmak. “Angkor Wat deritzon tenplua ikusi genuen; ikusgarria da, hark ez du Egiptoko piramideen edo Peruko Machu Pichuren inbidiarik. Merezki izan zuen bidaia egitea, bai”.




*“Angkor Wat tenpluak ez du Machu Pichuren inbidiarik”*

Thailandiara itzuli, eta Sydneyrako abioia hartu zuten: “Bidaia hori guztiz bestelakoa izan zen; hamar ordu egin genituen abioian, baina oso bidaia erosoa izan zen. Horrela, agur esan genion horrenbeste gauza eskaini digun lurraldeari. Baina Sydneyn ere, aireportua utzi eta zer entzungo? Bai, Asereje abestia! Badirudi guk geuk eramaten dugula abesti petral hori batetik bestera”.

Ez daramate egun askorik Australian, eta ez dute gauza askorik ikusteko aukerarik izan Irmak eta lagunak: “Sydney, behintzat, ikaragarria iruditu zait; oso hiri garbia da, oso ondo antolatuta dago eta jendea ere oso jatorra iruditu zait. Era eta arraza guztietako jendea dago. Kultura askotariko hiri da Sydney: arabiarak, asiarrak, anglosaxoiak... Denetarik ikusten da hemen! Kanguruak eta koalak ere han eta hemen ikusi ditugu”. 52 graduko inklinazioa duen munduko trenik aldapatsuenen ere ibili dira Irma eta laguna. Blue Mountains eta Grand Canyon inguruan trekking-a egin dute, eta dagoeneko lagun mordoa egin dituzte. Hilabete pare bat egingo dituzte Australian.

AINZANE GARDOKI



Sydneyko Opera House ere bisitatu dute Irmak eta lagunak.

OPEL

**Vectra GTS berria: klasedun deportibo baten sofistikazioa**

**GARAJE NORTE S.L.**

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA  
943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20

Garaje Nortean autoaren konponketa finantzatzen dizugu sei hilabetera, eta kostu gehigarri barik. **INFORMA ZAITEZ.**



# Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko azaroaren 29a / 103. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX/PAILAZOAK

*“Gure lana esker onekoa da: azkeneko 15 urteotan milioika musu eman eta jaso ditugu”*

AINZANE GARDOKI

**T**akolo, Pirritx eta Porrotx 15 urte zuekin Katxiporreta azken ikuskizuna entseatzen harrapatu ditugu. Bihar, zapatua, 15 urte hauetan lagun izan dituzten pertsonaiak Eskoriatzan izango dira pailazoekin batera.

### Takolok, Pirritxek eta Porrotxek zela ezagutu zuten elkar?

Lasarte-Orian, Olentzero Eguna Euskara Taldetik antolatzen genuen. Egun horri alaitasun handiagoa eman guran, pailazo jantzi ginen lagun batzuk. Herrian egun hori ospatzeko jaio ginen, baina laster, alboko herrietatik deitzen hasi ziren: Usurbil, Orio... Eta, apurka-apurka, batera eta bestera joaten hasi ginen.

### Zela gogoratzen dituzue urte haiek?

Amateurrak ginen. Zaletasunez egiten genituen egiten genituen guztiak; taldekideok irakaskuntzaren eta euskararen esparruetatik gentozen. Poliki-poliki, ofizio bihurtzen hasi zitzaigun zaletasun hura, eta orain dela 10 urtetik hona, pailazogintza dugu ofizio.



A.G.

### Ordutik hona, zertan aldatu dira gauzak?

Profesionalizatu egin garela esan dezakegu. Hainbat ikastaro egin ditugu: kantagintzaren eta gorputz adierazpenaren gainekoa, adibidez. Hasieran, gainera, pailazook bakarrik aritzen ginen guztia egiten. Orain, dagoeneko koadrilatxoak gara taldean.

### Gitarra batekin hasi zintzen, eta gaur, webgunea ere baduzue. Azken-azkenean egon beharra dago?

Nahiko alferrak gara kontu horiekin. Gu pailazoak gara, eta lan hori egiten dugu; baina, bestetik, egia da publizitatea, marketina eta kontu horiek ere zaindu behar izaten direla.

### 15 urte eman dituzue. Helburu berberarekin ari zarete?

Euskaldunak izatea da guk herri honi egin diogun ekarpena; alaitasuna euskara hutsean zabalteko helburuarekin jaio ginen, eta gizarteak gu guztiok eleantzik izan behar garela badio ere, gu, oraindik, elebakarrak gara, euskararen normalizazio bidean oraindik badugu-eta euskaraz zer landu eta zer jorratu.

### Mezu sakona dute lan askok,

### baina zein da zuen estiloa?

Marmelada hutsak gara, oso estilo errazekoak; gure hitzak, kantak eta mezuak belarrietatik eta begietatik sartzen dira. Publiko euskalduna da gurea, baina Nafarroako Erriberan edo Bilboko ezker aldean ere oso ondo ulertzen gaituzte. Leku horietan ematen dituzten erantzuna itzela izaten da!

### Une txar eta onak bizi izango zenituzten urte hauetan gutietan.

Azkeneko bi urteotan gure kontrako kanpaina gogorra egin dute, hori ezin da ukatu, baina herritarrek eman diguten laguntza eta adierazi diguten maitasuna hunkigarria izan da. Dena dela, gure lana beti oso esker onekoa izan da; 15 urte hauetan eman duguna hamaika aldiz jaso dugu. Ematen diguten musu bakoitza une alai bat da, eta milioika musu eman eta jaso ditugu urte hauetan.

### ‘15 urte zuekin Katxiporreta’ estreinaldia, bihar.

Azkeneko 15 urteotan egin ditugun lagunak izango dira, bihar, Eskoriatzan. Gure abestirik politenak kantatuko ditugu, eta txokolatetzko eta marrubizko musuak ere banatuko ditugu.

## LABUR

### Emanaldi arrakastatsua

Lagun ugari -zazpiehunenguz inguru- batu ziren Pantxoak eta Peiok herrian egin zuten kantaldian. Bikoteak *Lapur-tar koblariak* diskoa aurkeztu zuen herrian. Abesti berrien aurrean entzuleak adi egon ziren, baina lapurtarren betiko kantu zaharrek eskoriatzarrek eta inguruko herrietatik etorritakoez ezarriak gogotik astindu zituzten. Ordu eta erdi pasatxo aritu zen kantari bikotea. Emanaldia amaituta, ikusleak pozik zeuden, eta Pantxoa eta Peiok ere, astean, eskerrek emanez posta bidali die antolatzaileei. / ARGAZKIA: J. AZKARATE

### Eskoriatzako Izaera Komunitarioa aztertzen

HUHEZIKo Fakultateko sei ikasle, eskoriatzar bat barne, Eskoriatzako Izaera Komunitarioa aztertzen ari dira. Hori dela eta, mahai-ingurua egin zuten, herrian izan diren eta gaur egun dauden elkarteekin. Axtrokik, Amuskak, Gazte Asanbladak eta lehengo dantza taldeak hartu zuten parte. Elkarteeetan herritarren inplikazioa aztertu gura izan zuten, besteak beste. Oraindik ez dute atera ondorio zehatzik, baina elkarrekin adierazi zuten elkarrean artean harreman sendoa izan behar dutela.





LABUR

**Odola eman gura duenak beste aukera bat dauka**

Datorren abenduaren 3an eta 10ean, odola eman gura duten herritarrek kultura etxera jo beharko dute. 16:15etik 20:00etara bitartean eman ahal izango dute odola herritarrek. Iaz, bi alditan etorri ziren Arabako Odol Bankuko Unitateko kideak odola ateratzera Eskoriatzara. Eta iaz, 102 eskoriatzarrek eman zuten odola. 18 urte baino gehiago eta 66 baino gutxiago izan behar dira odola eman ahal izateko. Informazio zabalagoa gura izanez gero, deitu 945 00 78 78 zenbakira.

**Reala-Bartzelona ikustera herriko 26 gazte joango dira**

Etzi, domekan, Gaztekantoik antolatuta, herriko 26 gazte joango dira Donostiara Realaren eta Bartzelonaren arteko partidua ikustera. Arrasateko zaleekin batera joango dira, autobusean, Anoetaraino. Begirale bi izango dituzte lagun. Gaztekantoik urrian irekin zituen ateak berriro, eta zabalik izango ditu abenduaren 29ra arte. Zapatuetan eta domeketan hainbat ekintza egiten dituzte gaztetxoek. Donostiara egingo duten irteera ekintza horien barne kokatzen da.

**Abiadura Handiko Trenaren gaineko berbaldia**

Gazte Asanbladak antolatuta, martitzenean, Abiadura Handiko Trenaren gaineko berbaldia egin zuten. Tren horrek ibarrean izango duen eragina aztertu zuen AHT taldeko kide batek. Dozena bat gazte izan ziren berbaldian: "Eta, gainera, herriko jende gutxi egon zen, gehienak HUHEZIKO ikasleak ziren", esan digu Iñaki Kortazarrek. Adin guztietako herritarrek animatu gura dituzte GAK antolatzen dituen ekitaldietan parte hartzera.

AISSIALDIA

**Gurasoek umeekin euskaraz jolastea helburu zuen ikastaroan, guraso gutxi**

AINTZANE GARDOKI

Batetik, begirale lanetan aritzen diren ikasleek eta bestetik, irakasleek eta gurasoek egin dute Donostiako Urtxintxa Aisialdi Eskolako adituen eskutik euskal jolasen gaineko ikastaroa. 31 lagunek hartu dute parte hiru zapatutan egin dute ikastaroan. "Gehienbat 7 eta 8 urte bitarteko umeekin jolasteko moduko jokoak ikasi ditugu. Oso aberatsa izan da ikastaroa", adierazi digu Mari Carmen Arrietak. "Iaz, lehenengo aldiz egin genuen horrelako ikastaroa. Orduan eta orain, helburua berbera izan dugu: gurasoek umeekin euskaraz jolastea. Dena dela, pena txikitxo bat badugu: aukeran, guk gura beste gurasok ez dute eta parterik hartu ikastaroan. Hain zuzen ere, zortzi gurasok egin dute ikastaroa". Zapatuan, ikasitako jokoekin Jolas Jai polita egin zuten umeekin batera.



Joan den zapatuan, umeek ere parte hartu zuten Jolas Jaian.

AITOR URIZAR

TELEFONO JAKINGARRIAK

**ESKORIATZA**

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo-Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

**BESTELAKOAK**

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

**KONTZERTUAK GAZTETXEAN**

Bihar, zapatua, 22:00etan, kontzertua eskainiko dute Descontrol eta MPB taldeek, herriko gaztetxean. Eskoriatzako Gazte Asanbladak antolatuta.

**'GABON BIDEAN' PROGRAMA**

Abenduaren 11n, Enkarni Genuak *Erreka Mari*, azken lamia txotxongilo emanaldia egingo du, liburutegian, 18:00etan.


Bestalde, abenduaren 13an, 14an eta 15ean, haur eta gaztetxoendako euskarazko liburu eta informatika jolas eta materialen erakusketa egingo dute, kultura etxean.

**AXTROKIRENAGENDA**

**TAKOLO, PIRRITX ETA PORROT**

Pailazoan 15 urte zuekin *Katxiporreta* azken ikuskitzuna ikusteko sarrerarik ez baduzu, gogoratu Adeliren dendan, Tortolis ludotekan eta Axtrokiren bulegoan dituzula salgai.

**TXUTXUMUTXUA**



**Carlos Linazasoro idazlea ikasleekin**


Astean, Carlos Linazasoro idazle tolosarra Luis Ezeiza Herri Eskolako ume talde batekin izan da. Iaz, Haur Literaturan Euskadi saria irabazi zuen Linazasorok, *Bota Gorriak* lanarekin. Eskoriatzako umeak liburuaren eta autorearen gainekoak aztertu zituzten harekin batu aurretik. Txintxo eta adi entzun zituzten idazle tolosarrak esateko zituenak, baina umeek eurek ere liburu pertsonaia zelatik ikusi zituzten adierazi zioten idazleari. Ikasle bakoitzak aukeratutako pertsonaiaren marrazkia ere erakutsi zion Linazasorori. Hari, ikasleek egindako lanak asko gustatu, eta ikasleek opari egin zizkioten marrazkiak.

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



**EDURNE**

Aranburuzabala, 42  
Tel.: 943 71 51 54  
ESKORIATZA



*Gustora egoteko!*

Intxaurtxueta 8  
**ESKORIATZA**  
943 71 40 63

**Ze barri?**

**Izan zaitez zeu ere berriemaile!**

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

**943 79 86 21**



**Bazkari eta afariak**

**Astelehenetan itxita**  
**ESKORIATZA**

# Baserritarrez osatutako Jakion enpresaren produkzioa haziz doa

AINTZANE GARDOKI

1996an, lokala egokitzeko lanak eta baserriko produktuak kontserbetan jartzeko behar zuten tresneria erosi zuen Jakion enpresa sortu berriak. Eta herrian kokatu zen enpresaren produkzioa haziz doa: aurten, 52.000 poto egin dituzte baserriko produktuekin.

1997an hasi zen Jakion enpresa ibarreko baserritarren produktu freskoak kontserbetan jartzen. Ibarreko baserrien eta baserritarren egoerarekin arduratuta, Deba Garaiko Mendi Nekazaritzak, ibarreko udalek eta 29 baserritarrek abian jarritako ekimena da Jakion. "Inguruko baserritar asko eta asko adinean gora doaz. Askotan, etxerako baino produktu gehiago ereiten dute baserrietan, eta gero, ez dute jakiten soberakinekin zer egin. Baserriaren aldeko apustua egin gura duena, gainera, inbertsio handia egin beharrean dago. Zerbait egin beharra zegoen, eta, horri irtenbidea eman guran, Jakion sortu genuen", esan digu Jakioneko gerente Susana Aiastuik. "12 milioi pezetako inbertsioa egin genuen. Geroztik, bi aukera ditu baserritarrak: alde batetik, produktua guri saldu; edo, bestetik, produktua hemen transformatu eta gero, bere aldetik saltzea ere badauka baserritarrak".

Gaur egun, hiru langile ditu Jakionek: oñatiar, aretxabaletar eta gatzagar bana. Uztailetik urta-



Jendeak eskatzen duenari erantzuna ematen saiatzen da Jakion

rrilera artean izaten dute lan handien. Euskal Herriko denda txikietan eta hipermerkatuetan daude salgai Jakioneko produktuak: sagarrak, okaranak, makatzak, ahabiak, andere-mahatsak, sagar gozoak, erremolatxak, zerbak,

lekak, porruak, tomateak, azalorreak, eta beste hainbat produktu daukate aukeran. "Tomate naturala saltzen dugu gehien; edozein ere, jendeak eskatzen digunari erantzuna ematen ere saiatzen gara; esaterako, ospitale batetik

eta zaharren bi egoitzatik azukrerik gabeko mermeladak egiteko eskatu digute. Aza kontserban jartzeko ere eskatu zigen bezero batek, eta, geroztik, izugarrizko arrakasta izaten ari da aza. *Berotu eta jan* produktuak ere

*"Baserriaren aldeko apustua egin gura duena inbertsio handia egin beharrean izaten da"*

*"Tomatea saltzen da gehien, baina jendeak eskatzen digunari erantzuten ere saiatzen gara"*

*"Olio frijitua bota eta jateko gertu dauden produktuak egiten hasi gara; porru-patatak, adibidez"*

egiten hasi gara; hau da, olio frijitua bota eta jateko gertu daudenak; porru-patatak eta zerbak patatekin, adibidez".

Iaz, 38.000 poto saldu zituen Jakionek, eta aurten, 52.000 inguru saltzeraino helduko da.

## LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA  
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61


**DORLETA**  
Aranburuzabala, 22 behea  
ESKORIATZA  
Tfnoa.: 943 71 51 20

## OTZETA TABERNA • JATETXEA

- Eguneko menua
- Palter konbinatuak
- Bokadiluak
- Pintxuak



Aranburuzabala 7. Tel.: 943 71 51 90 ESKORIATZA



Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.  
Gastañadui euzoa 42  
20540 Eskoriatza  
Gipuzkoa  
Tel: +34 943 719 000  
Fax: +34 943 719 001



Informazioa eta erreserbak:  
943 58 50 58 eta 617 78 74 32  
LEINTZ GATZAGA

Mountain Hard Wear  
Millet  
Ternua  
Salewa  
Solo  
Tuckland  
Salomon  
Peltz  
Boreal  
Asolo  
Ferrino  
Vaude  
Garmin  
Magellan  
Neak  
Coleman  
Grivel

Rossignol  
Atomic  
Fischer  
Nordica  
Lange  
Head  
Salomon  
Dynastar  
Skitrab  
Low  
Scarpa  
K2  
Mitre



www.forumsport.com

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS  
KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6  
20500 Arrasate. Gipuzkoa  
Tef. 943 77 30 72

**Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia**



**HORMA-  
ARMAIRU  
AUKERA  
ZABALA**

Eta mota  
guztietako  
ateak.  
Informa zaitetz!



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak  
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE**  
AROTZEGIA  
Telleria, 19 B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
610 88 40 20

**ARDATZA**

Brikolaketa  
Masterreka, 4 behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA




# 1 euskal selekzioaren cd-rom jokoa



**eskatu  
orain!**

**902 010 735**  
Telefona 24 orduz.

**Imajina dezakezun guztia!**



Egin ezazu zuk zeure hamaikakoa!

Aukera ezazu taktikarik egokiena

Jokatu:  
Munduko Txapelketa,  
Lagun arteko partidua,  
sarean,...

Grafikorik onenak 3D-n Txilenak, erregateak, jaurtiketak, sarrera ikusgarriak, golen ospakizunak...  
Giro-soinu aparta,  
Ikurrinak harmailetan...  
Jokoaren estatistikak  
Jokaldi onenen errepikapenak...  
Lau futbol zelai aukeran.  
Partidua egunez, gauzez, euriarekin...



**euskal selekzioaren bufanda**  
Izakinak bukatu arte.

Zure etxean,  
72 orduan bidaltze gasturik gabe



Jokoa orain erosiz gero,  
bufanda eta garraioa

**DOAN**